

HERRITARREN PARTE-HARTZEA

Auzoko bilera: Ipurua

DATA: 2024/11/20

Saila	Laburpena	
Hirigintza	Sostoatarren 5eko bizilagun batek dioenez, anbulantziarik edo suhiltzailerik behar izanez gero, inguruan ez dago haiek sartzeko biderik. Aldapa bat eskatzen du	Gaur egun ibilgailuentzako sarbide bat dago eskailera batzuetaraino. Oinezkoentzako arrapala batek gehiegizko malda izango luke. hainbat aukera aztertzen ari gara.
Zerbitzuak	Bizilagun berak dio 5 zenbakiaren atzeko aldean sastrakak, sasiak eta arratoiak daudela.	Kalbeto 6ko atzealdea pare bat aldiz garbitu da 2025ean.
Zerbitzuak	Emakume batek eskerrak ematen ditu San Kristobaleko igogailu berriarengatik. Bestalde, dioenez, kale bereko 17-19 zenbakietako eskailerak oso urratuta daude. Horrez gain, barandak behar dituzte.	Mankomunitateari oharra pasatuko zaio Karcherra pasatu dezaten inguruko berdina kentzeko. Hala ere, esan beharra dago eskailerak oso zaharrak direla eta urratuta daudela. Hortaz, haien birgaitze integrala beharko litzateke, mantentze-lanetatik haragoko arazoa da. Baranda dela eta: Aztertzen ari dira zein izango litzatekeen hura jartzeko aukerarik onena.
Hirigintza	Bizilagun batek esaten du San Kristobal 17-19 zenbakien artean konpondu beharreko oztopo arkitektonikoak daudela.	Espazioaren beraren konfigurazioagatik berarengatik arrapalak jartzea oso konplexua da, eta ez lituzkete irisgarritasun-arauak beteko. Aukerak aztertzen ari gara.
Zerbitzuak	Bizilagun berak dioenez, inguruan zuloak daude, ez dago espaloirik eta barandak herdoilduta daude. Ingurua aztertzeko dio, horrelako gauzak konpontze aldera.	Horren harira, aztertzen ari gara zein izango litzatekeen baranda jartzeko aukerarik onena.
Hirigintza	Auzokide batek galdetzen du ea badagoen San Kristobal auzoa hobetzeko proiekturik.	Gaur egun San kristobal auzoan asfaltatze-lanak egitea aurreikusten da. Baita aparkaleku bat egitea ere, Ubitxa/San Kristobal/urki gunetarako. Bi igogailu jarri ondoren, beste

HERRITARREN PARTE-HARTZEA

Auzoko bilera: Ipurua

DATA: 2024/11/20

Saila	Laburpena	
Zerbitzuak	Pertsona berak dio San Kristobal 3a gehiago garbitu behar dela.	gune batzuetan egin daitezkeen hobekuntzak aztertzen ari da Udala. Mekanizazio-planarekin orain astean egun bat gehiago joaten gara eskobatzeko makina txikiarekin, makina sartzen den tokietan pasatzeko. Bestalde, 07/01etaik 06/03ra bitartean ur-makina pasatu dugu auzotik.
Zerbitzuak	Bizilagun batek dio Zezen Plazaren eta Kuartelaren arteko eskaileretan 3 kale-argi daudela oso gutxi argiztatzen dutenak eta apurtuta daudenak. Konpontzea eskatzen du.	Lan-agindua eman zen egoera txarrean dauden eskailerak gainbegiratu eta konpontzeko. Behar izanez gero, kexak aipatzen dituen kale-argiak gainbegiratu eta konpontzeko lan-agindua eman zen, arazoari irtenbide bat emate aldera.
Zerbitzuak	Bizilagun batek laugarrenez eskatu du San Kristobal 17-19 zenbakien arten baranda bat jartzeko.	Baranda aztertzen ari dira, ez baita batere erraza.. Eskaileren erdian baranda bat jarritz gero, alboetako distantziek, eskatzen den bezala, ez dute araudia betetzen. Eskudel bat jartzea aztertzen ari gara
Hirigintza	Auzokide batek dio zaila dela aparkatzea Romualdo Galdosen, Sostoatarren... futbol- eta pilota-partiduengatik. Soluzio bat eskatzen du.	Administrazio-arazoak konpondu ondoren, laster jarriko dira martxan anexoaren azpiko aparkalekuak. Neurri honekin arindu egingo da zertxobait aparkaleku-arazoa.
Hirigintza	Romualdo Galdos 22ko auzokide batek dioenez, lorategien inguruan hezetasun handia egoten da, hormaraino ere iristen dena. Ingurua berriztu zenetik, lehen ez zuten hezetasuna dute bizilagunek.	Udal Lantaldearen iritziz, arazoaren jatorria ez da ingurua berriztu izana.

HERRITARREN PARTE-HARTZEA

Auzoko bilera: Ipurua

DATA: 2024/11/20

Saila	Laburpena	
Hirigintza	Auzokide batek galdetzen du ea zer aukera dagoen Argatxako jardinetan arrapala jartzeko.	Gune honetako irisgarritasuna hobetzeko hainbat aukera aztertzen ari gara.
Zerbitzuak	Pertsona berak esaten du Argatxako jardinetan , iturria dagoen tokian, hiru zuhaitz daudela: horietako bi moztu egin ziren eta hirugarrena ia seigarren pisuraino iristen da. Haize handia dabilenean, zuhaitza mugitu eta ia etxeraino sartzen da.	Lan-agindua egin zen (1672) berriz ere Argatxako zuhaitzen kontua gainbegiratzeko. Ikuskaritza egin ondoren, lorategi-arduradunak esaten du orain urte batzuk zuhaitz altuenak kimatu zituztela, fatxadara hurbiltzen zirenak, eta negu honetan gauza berea egingo dutela. Bestalde, Argatxako zuhaitzak, oro har, egoera onean daudela diote. Orain dela bi urte Cercis Siliquastrum zuhaitzen adaburuak moztu ziren. Gainera, urtero gainbegiratzen dira, eta beheko ezpondako batzuk beharraren arabera kimatzen dira (2-3 urte).
Hirigintza	Auzokide batek eskatzen du azter dadila Egogainetik Isasira bitarteko arbide bat, igogailu baten bidez. Era berean, eskatzen du Juan Antonio Mogelen, Borda tabernaren gainean, arrapala bat egiteko.	Corte Ingleseko terraza eta Armeria Eskolako lorategia lotzen dituen igogailuaren proiektua – publikoari irekiko zaio – eta espazio horiek berrurbanizatzeko proiektua enkargatu dira. Datorren urtean gauzatzea aurreikusten da. Borda tabernaren inguruan, espaloiko gurutze batzuk daude. Aurten, irlatxoaren hiru pasabideetan beherapenak egin dira, eta hobekuntza egiteke geratu denez, behin-behineko konponbidea gauzatu da.
Zerbitzuak	San Kristobal 3ko auzokide batek dio inguruan txakur-kaka gehiegi daudela.	Arazoa kontrolatzen saiatzen dira, baina ardura txakurren jabeen aldetik etorri behar da.

HERRITARREN PARTE-HARTZEA

Auzoko bilera: Ipurua

DATA: 2024/11/20

Saila	Laburpena	
Udaltzaingoa	Bizilagun bera kexu da gazte-lokal batzuetako zaratagatik. Araudiaren gaineko informazioa eskatzen du. Horrez gain, auzozainaren figura berreskuratzea eskatzen du.	Horren harira, Udaltzaingoa egiten du kontrola, eta zenbait lokal itxi ditu dagoeneko. Lokal jakin horri dagokionez, uste dugu dagoeneko itxita dagoela. Auzozainaren figura laster berreskuratuko da.
Alkatetzak	Auzokide baten iritziz, auzoko ludoteka txikia geratu da, eta beste zerbait behar dela.	Horixe da dagoen espazioa. Ipuruako kiroldegian badaude espazioak, eta ikastetxeekin hitz egin da arratsaldeetan patioak ireki ahal izateko.
Udaltzaingoa	Bizilagun berak Poliziari dokumentazio bat aurkeztu dio Otaola 3ko garajearen ibiari buruz.	Ez dakit zein den dokumentazio horren edukia. Ulertzen dudanaren arabera, gaia zuzenean aztertu da Poliziarekin.
Alkatetzak	Bizilagun batek esaten du ez dagoela estalitako instalaziorik umeak eskolatik ateratzen direnerako. Gizonak proposatzen du Ipuruako merkatu-plaza erabiltzea 16:30etik 18:30era bitartean.	Badaukagu arao horren berri. Iaz guraso talde batekin hitz egin zen ipuruako merkatu-plaza erabili ahal izateko. Hala ere, espazio hori erabiltzeak ardurak eta betebeharrak dakartza berekin.
Zerbitzuak	Bizilagun bat kexu da Egogainetik Isasira bitarteko eskailerak askotan egoten direlako geldirik. Horrez gain, dioenez, Romualdo Galdos eta Santaines kaleen artean zuhaitz bat moztu zuten eta ez dute besterik jarri.	ESKAILERAK: jakinarazpenak zuzenean iristen dira TKEra. ZUHAITZA: Lorategi-arduradunak gainbegiratu ondoren, esaten du aurten ez dela zuhaitzik landatu Argatxan. Hala ere, komeniko litzateke zehatzago esatea zein den kaltetutako gunea.
Zerbitzuak	Pertsona berak dio zenbaitek zaborra inguruan lagatzen duela.	Erantzukizuna eta gizalegea pertsonen kontua dela. Kontrolatzen saiatzen dira eta zigorra jarri.

HERRITARREN PARTE-HARTZEA

Auzoko bilera: Ipurua

DATA: 2024/11/20

Saila	Laburpena	
Zerbitzuak	Ipuruako lehengo sagardotegiko sarreran kristal hautsi bat dago erortzeko arriskua duena. Egoera aztertzeko eskaera egiten du, arriskutsua delako.	Ez da Udalekoa, baina ikuskatu ondoren, kristala barrutik dagoela apurtuta ikusten da, beraz, horrek ez dakar arriskurik.
Zerbitzuak	Juan Antonio Mogel 10eko bizilagun bat kexu da inguruan usoak daudelako, baita kalea ez dagoelako garbi ere. (Juan Antonio Mogelego aurreko aldea). Argazkien bidez erakusten dute ez dela garbitzen.	Bere garaian Mankomunitateari abisua pasatu zitzaion, eta ur-makina pasatu zen, baina egun gutxitara berdin zegoen. berriz garbitu zen eta udal-albaitariari eman zitzaion egoeraren berri, arazoari zer irtenbide eman ahal zaion azter dezan.
Zerbitzuak	Emakume batek eskatzen du igogailu bat jartzeko Isasirekin lotzeko.	Udalean ari dira aukera hori aztertzen, eta Armeria Eskolako parkea herritarrentzako zabaltzea ere. Laster izango ditugu xehetasun gehiago.
Udaltzaingoa	Bizilagun batek eskatzen du zebra-bidea jartzea Ipurua tabernaren inguruan, kuartelego hormarekin lotzeko.	Handik gertu badago zebra-bide bat. Ez dugu beharrezkoa ikusten beste bat jartzea. Dena dela, berriz eskatzen bada, berriro aztertuko da gaia.
Zerbitzuak	Gizon batek dio belarra mozten denean, moztutakoa lorategietan uzten dela. Gainera, Argatxako jardinetan banku zaharrak eta apurtuak daudela dio; zuhaitzak inausi gabe daudela gaineratzen du.	Lan-agindua egiten da apurtutako bankuak gainbegiratu eta konpontzeko. Hala ere, uste dut konponketa hauek urtean zehar egin direla, beraz, jakinaraziko digute zein den gaur egun banku horien egoera. Argatxako zuhaitzen inausketaren gaia errepikatuta dago. Aurretik erantzun da.
Zerbitzuak	Bizilagun beraren ustez, eskobatzen duten makinek ez dute behar bezala garbitzen.	Mankomunitatearen erantzuna: ezin hobeto nabaritzen da makinak nondik pasatu diren, marka ikusten da-eta. Hori ez bada ondo garbitzea... makina horiek "igurtzi", eskuilatu eta aspiratu egiten dute.

HERRITARREN PARTE-HARTZEA

Auzoko bilera: Ipurua

DATA: 2024/11/20

Saila	Laburpena	
Obrak	Auzokide batek dio Ipuruako kiroldegia tantanak dituela eta teilatua ez dela sekula margotu.	Inbertsioak egiten ari dira kiroldegia hobetze aldera, eta gaia aztertzen ari da.
Hirigintza	Zezenbide 10eko bizilagun batek dioenez, goiko aldetik zezen plazaren parerainoko tartean jende asko bizi dela. Inguruak eskailera zailak ditu eta ez oso irisgarriak. Gainera, haren ustetan, suhiltzaileak edo anbulantzia bertaratu behar izanez gero, ez dute sartzeko modurik.	Saiatuko gara koexistentzia gunen bat sortzen Zezenbiden, oinezkoak errazago ibil daitezen eta gunean ibilgailu gutxiago ibiltzeko, larrialdi-zerbitzuen sarbidea errazteko.
Hirigintza	Pertsona beraren arabera, lehengo Gurbil taberna zegoen orubea zaindu gabe dagoela. Jabeekin hitz egitea proposatzen du, mantentze-lanak egin ditzaten.	Hitz egin dugu lursailaren jabeekin behar bezala zaindu dezaten. Garbiketa-lanak egin dira dagoeneko.
Obrak	Gizonezko batek dio Santaineseko komentua oso egoera txarrean dagoela. kristalak apurtuta daude, zutabeetatik ura erortzen da eta ingurua oso hondatuta dago. Esku hartzea eskatzen du.	Joan dira garbitzera eta txukuntzera, eta inguru horretarako aurreproiektu bat idazten ari da egun.
Zerbitzuak	Emakume batek eskatzen du Gauetan Unbeko kale-argia amatatzea.	Ez dugu beharrezkoa ikusten.

HERRITARREN PARTE-HARTZEA

Auzoko bilera: Ipurua

DATA: 2024/11/20

Saila

Laburpena